



m a n t a n g o r r i
ASTEKO ASMAKIZUNA

Pilota guztiek aurpegian jotzen naute,
baina nik minik ez, harrizkoa naizenez...

Zer den nork igarriko?



Artearekin biran

PAUL BOGADO/ARGAZKI PRESS



ERREPORTAJEA



Fabulous Basterretxea!

MAUSHAUS



Nestor Basterretxea eskultore eta margolaria du ardatz Donostiako Maushaus taldeak haurrentzat Arantzazuko santutegian abiatutako tailerrak.

Testua: **Maialen Unanue**

Hamaika izan daitezke Arantzazura (Oñati, Gipuzkoa) joateko arrazoiak. Bertatik igo daiteke Urbiara edo Aizkorri-
ra, esaterako. Baina Arantzazu ezagunagoa da santutegiagatik. Bertara erromesaldiak eginak izango dira zenbait. Duela hiru urtetik, beste erromesaldi txikiago bat jasotzen du: santutegiari buruzko tailerretan parte hartzera doazenen haurrena, alegia. Izan ere, Arantzazuko Adiskideak elkar-tearekin elkarlanean, Donostiako Maushaus taldeak tailer bereziak antolatu ditu hirugarren urtez bertan 6 eta 11 urte bitarteko haurrentzat. Aurtén, Nestor Basterretxea eskultore eta margolariari buruzkoa egín dute, Fabulous Basterretxea izenburupean. Apirilaren 11n egín zuten lehenengo saioa, eta datorren larunbatean, hilaren 9an, egín dute bigarrena, 10:30etik aurrera.

Basterretxeak 1952an hasi zituen Arantzazuko kriptá margotzeko lanak; 1956an, baina, Vatikanoko batzorde batek ebatzi zuen bermeotarrak erabilitako molde plastikoak desegokiak zirela, eta egíndakoa ezabatzeko agíndua eman zuen. Dena den, 1982an berri ekin zion lanari, eta 1986an amaitu zuen. Egún, obra hori da Maushaus taldearen tailerraren ardatza. Esther Lopez taldeko kide-

Basterretxea ardatz

FITXA

- ◉ **Noiz:** Maiatzaren 30ean, 10:30ean.
- ◉ **Non:** Arantzazun (Oñati, Gipuzkoa).
- ◉ **Toki kopurua:** 20 lagun.
- ◉ **Adina:** 6-11 urte.
- ◉ **Izena emateko:** 943-71 65 75 / arantzazugaur@arantzazu.org.



● ● Collagea egin zuten gaztetxoek, proiektoreen laguntzarekin. MAUSHAUS

ak adierazi duenez, «oso pozik» daude apirilaren 11ko saioarekin: «Izena emandako haur guztiak joan ziren, nahiz eta eguraldi eskas samarra egin zuen. Gu oso gustura egon ginen, eta haurrak ere bai: tailerra luzatzeko eskatu ziguten, pentsal». Hogei pertsonarentzako tokia aise bete dutenez, maiatzaren 30ean hirugarren tailer bat egingo dute, ordu berean.

Hezkuntza artistikoa

Hiru orduko tailerra dute antolatuta. Hasieran, zer egingo duten azaltzen diete haurrei, eta ondoren, Basterretxearen lana ezagutzera eramaten dute Lopezek eta

haren lankide Carlos Arruti eta Anabel Varonak. Bisitaren ostean, eskularen ordua dator, haurrei gehien gustatzen zaien zatia. «Hamaiketakoaren ostean, tailerra hiru zatitan banatu, eta eskultura, mural pintaketa eta collagea landuko ditugu. Gure gorputzaren formarekin eskulturak egiten saiatuko gara lehenengo, gero murala margotuko dugu, eta, azkenik, proiektore eta filminen laguntzarekin, collagea landuko dugu». Bertan sortutakoak etxera eraman ditzakete haurrek gero, murala izan ezik, eskala handian egingo baitute (2x4 metroko koadroa). Lopezek azaldu duenez, datozen urteetan tailer gehiago



● ● Gustura ibili ziren haurrak apirilean egindako saioan. RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS



● ● Bisita eta gero, eskulanean aritu ziren, murala margotzen. MAUSHAUS

egitea espero dute Arantzazun. «Arantzazuko eliza obra oso kompletoa da, izkin guztietatik dauka zer ikusia eta zer ikasia. Arte mota ugariaren bilgune da, eta oso zaindua dago hasieratik bukaeraraino, urte askotan zehar osatua». Gertu egon arren, jende askok ez duela Arantzazu ezagutzen dio Lopezek, eta tailerrok jendea bertara gerturarazteko asmoz hasi zituztela. Lopezen arabera, lehenengo tailerra basilikari buruzkoa orokorrean izan zen, eta iazkoa Xavier Alvarez de Eulateri buruzkoa (hark egin zituen beira-leihoak). «Gainera, konturatu gara zenbait ume urtero etorri direla

tailerretara, eta polita da berriz elkar ikustea eta gaia gustuko dutela jakitea».

Maushaus hezkuntza artistiko-teknikorako proiektua da, haur eta gaztetxoei zuzendua. Haurrei inguruan dutena nola osatuta dagoen ezagutaraztea da tailerren helburua, eta alde horretatik, hainbat lantegi antolatzen dituzte hainbat museo eta fundaziorekin elkarlanean. «Munduko arkitektoei buruzko tailerrak egin genituen Donostian, Oteiza museoan ere ibiliak gara... Tailerrak egiten ditugu astero Prim kaleko bulegoan, eta hau laugarren edo bosgarren urtea izango da», azaldu du Lopezek.